

BARNEKO INFORMAZIO SISTEMA ERABILTZEKO ARAUAK

- 1.- Helburua eta irismena
- 2.- Araubide juridikoa eta oinarrizko printzipioak
- 3.- Jakinarazpena egiteko prozedura
- 4.- Jakinarazpenak tramitatzea eta kudeatzea
- 5.- Barneko Informazio Sistemaren indarraldia

1.- HELBURUA ETA IRISMENA

Hauek osatzen dute BERRIaren Barneko Informazio Sistema: Kanal Etikoak, hura kudeatzeaz arduratzen den batzordeak eta haren funtzionamendua arautzen duen dokumentu honek. Dokumentu honen helburua da Barneko Informazio Sistema erabiltzeko prozedura bat ezartzea, 2/2023 Legearen 2. artikuluan jasotako gaietan hautemaniko susmo eta gertaerak modu konfidentzian jakinarazteko eta tramitatzeko.

1.1. Aplikazio eremu objektiboa

2/2023 Legearen 2. artikuluan jasotakoaren arabera, Barneko Informazio Sistemaren bitartez gai hauek jakinarazi eta kudeatuko dira:

- Europako Batasuneko zuzenbideari loturiko arau hausteren bat dakarten ekintza edo ez-egiteak.
- Arau hauste penalen bat dakarten ekintza edo ez-egiteak.
- Arau hauste administratibo larriak edo oso larriak izan daitezkeen ekintza edo ez-egiteak, bereziki Ogasun Publikoarekin eta Gizarte Segurantzarekin lotutakoak.
- Lan zuzenbidearen arloan laneko osasunari eta segurtasunari dagozkien arau hausteak.

Hemendik kanpo geratuko dira pertsonen arteko gatazkei dagozkien informazioak.

1.2. Aplikazio eremu subjektiboa

Kanal Etikoa eskura izango dute, Barneko Informazio Sistemaren elementu gisa, lanpostuan edo lanbideko testuinguruan BERRIArekin harremana duten pertsona fisikoek. Lan harremanen edo harreman profesionalen eremuan eta BERRIAren jardueraren inguruan arau hausteren bati buruzko informazioa lortu dutenek erabil dezakete, 2/2023 Legearen 3. artikuluan aurreikusitakoaren arabera: langileak edo langile ohiak, bekadunak edo praktiketako ikasleak, kolaboratzaileak, akziodunak, Administrazio Kontseiluko kideak, hornitzaileak; aurrerantzean, **Informatzailea/k.**

1.3. Barneko Informazio Sistemaren arduraduna

Kanal Etikoaren Batzordea izango da Barneko Informazio Sistemaren bidez jasotako jakinarazpenen hartzailea, eta organo hori bera arduratuko da halakoak kudeatzeaz eta ikerketa espedienteak tramitatzeaz.

2.- ARAUBIDE JURIDIKOA ETA OINARRIZKO PRINTZPIOAK

Arau hauetan jasotako xedapenei jarraituko zaie: otsailaren 20ko 2/2023 Legeari, zeinak, Barneko Informazio Sistemaren funtzionamendua eta erabiltzaileek dituzten eskubideen, betebeharren, bermeen eta sarbide eta erabilera baldintzen araubidea osatzeko, arautzen baitu nola babestu arau hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen dutenak; Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoari; eta aplikatu beharreko gainerako arauak.

Horrez gainera, BERRIAren webguneko pribatutasun politikak arautuko du Kanal Etikoa, modu osagarrian eta aplikatu beharrekoa denean.

Kanal Etikoan sartzen diren eta hura erabiltzen duten informatzaileek konpromisoa hartzen dute arduraz eta egoki erabiltzeko, eta, betiere, indarrean dagoen legediaren arabera.

Kasu guztietan, BERRIA izango da Barneko Informazio Sistemaren arduraduna.

Barneko Informazio Sistema printzipio hauetan oinarritzen da:

1. Fede onaren printzipioa: informatzaileek fede onez aritu behar dute, eta ez dute salaketa faltsurik egin behar. Informatzaile batek, nahita, aitorpen faltsuak, nahasgarriak edo fede txarrekoak egiten baditu, diziplinazko neurriak ezarri ahalko zaizkio BERRIaren lan itunean eta indarrean den lan arloko legedian ezarritakoaren arabera, eta, kasuaren arabera, agintzaritza judizialari edo fiskaltzari helarazi beharko zaio.

2. Errepresalien debekua: debekatuta daude informatzaileen eta 2/2023 Legearen 3. artikuluan aipatzen den pertsona ororen aurkako errepresaliak. Egiaztatzen bada informatzaileak edo aipatutako artikuluan aurreikusitako pertsonetako edozeinek errepresaliak izan dituela, dagozkien ikerketak egingo zaizkie haien egileei, eta, hala badagokio, zehatu egingo dira. Berariaz babes horretatik kanpo geratzen dira informazio hauek komunikatzen edo adierazten dituzten pertsonak:

- Informazio faltsuak, engainagarriak edo fede txarrekoak.
- Baztertutako jakinarazpenetan jasotako informazioak.
- Pertsonen arteko gatazkei buruzko informazioak edo informatzaileari eta jakinarazpenean azaltzen diren pertsonen bakarrik eragiten dietenak.
- Erabat publikoaren eskura dauden edo zurrumurru hutsak diren informazioak.

3. Anonimotasuna: informatzaileek aukera izango dute Kanal Etikoaren bidez jakinarazpenak modu erabat anonimoan egiteko, hala nahi badute.

4. Konfidentzialtasuna eta datu pertsonalen babesa: kasu guztietan konfidentzialak izango dira bai informatzailearen jakinarazpena eta izen-abizenak, bai salatuarena eta bai jakinarazpenak eragindako ikerketa prozesuan nahasitako pertsona guztienak (komunikatutako gertaera legez kontrako jokabide penala bada bakarrik adieraziko zaie eskumena duen agintaritza judizial edo administratiboari edo Fiskaltzari nor diren ikerketa prozeduran esku hartu dutenak). Era berean, konfidentzialtasuna bermatuko da jakinarazpena Kanal Etikoa ez den beste bideren batetik egiten denean ere. Halakoetan, jakinarazpenaren hartzaileak Kanal Etikora bideratuko du informazioa, eta ezabatu egingo du gainerakoa.

Berme hauek ezartzen dira konfidentzialtasuna ziurtatze aldera:

- Ezingo da jakinarazi parte hartzaileak nor diren, haien adostasun indibidualik gabe.
- 2/2023 Legearen 32. artikuluan aurreikusitako pertsonak baino ez dute izango Barneko Informazio Sisteman jasotako datu pertsonaletarako sarbiderik.
- Informazio hori modu desegokian jakinaraztea diziplinaz zehatuko da, delitua izan daitekeenez.

5. Ohorerako, errugabetasun presuntziorako eta defentsarako eskubidea: eskubide horiek babestu egingo dira, legezko berme guztiekin.

3.- JAKINARAZPENA EGITEKO PROZEDURA

3.1. Jakinarazpena eta lankidetzak

Lanpostuan edo lanbideko testuinguruan BERRIArekin harremana duten pertsona fisikoek (edozein dela ere haien kontratu mota eta postu hierarkikoa edo funtzionala) modua izango dute 2/2023 Legearen 2. artikuluan jasotako alderdien aurkako eta BERRIAN antzemandako arau hausteen berri emateko.

Halaber, jasotako jakinarazpenen ondorioz egin beharreko ikerketan esku hartzeko dei egiten zaion pertsonak laguntzeko betebeharra izango dute hala eskatzen bazaie. Ikerketan ez laguntzeak, horretarako betebeharra dagoenean, diziplinazko zehapenak eragin ahal izango ditu.

Kanal Etikoa ezingo da erabili sortua izan den helburuez bestelako xedeetarako.

3.2. Kanal Etikorako irispidea

Informatzaileak BERRIAren webgunearen bidez sartu ahal izango dira Kanal Etikoan, eta hori izango da dokumentu honetako 1.1. puntuan jasotako arau hausteen berri emateko

lehentasunezko bidea. Horrez gain, jakinarazpenak ahoz ere egin ahal izango dira, telefonoz, 943 56 04 03 zenbakian. Bide horretatik egindako jakinarazpenak grabatu egingo dira, aurrez informatzaileari hala egingo dela jakinarazita.

Informatzaileak hala eskatzen badu, bilera presentzial batean ere egin ahal izango da jakinarazpena; eskaera egiten denetik gehienez ere zazpi egun naturaleko epean egingo da bilera. Eskaera hori Kanal Etikoaren Batzordeko kideei egin beharko zaie.

Edozein dela ere jakinarazpena aurkezteko bidea, informatzailearen datu pertsonalak tratatu beharra eragiten badu (salaketa ez bada anonimoa), bermatuko da behar bezala betetzen direla informatzailea informatzeko eta zilegitasunari buruzko betebeharrak, datu pertsonalen babesari dagokionez aplikatu beharreko legediak ezarritakoaren arabera.

Era berean, jokabide irregularren edo arau hausteen berri duen pertsonak agintari eskudunei ere jakinarazi ahal izango die, eta, hala badagokio, Europako Batasuneko instituzio, organo edo organismoei.

3.3. Jakinarazpenaren gutxieneko edukia

Aurkeztutako jakinarazpenak alderdi hauek jaso beharko ditu gutxienez:

- informatzaileak BERRIArekin duen harremana
- jakinarazpena eragin duen gertaera
- azalpena (zertan oinarritzen den ustezko arau haustea)
- gertaera noiz izan den
- adierazitako gertaera egiaztatzeko lana errazten duten dokumentu edo frogarik balego, horiek ere aurkeztu beharko dira

Halaber, informatzaileak nahi badu, beste alderdi hauek ere adierazi ahal izango ditu: bere izen-abizenak, harekin harremanetan jartzeko modua (posta elektronikoa edo helbidea) eta esanguratsua iruditzen zaion beste edozein alderdi (gertaeraren kokapena, pertsona inplikatuak, maiztasuna, eragin ekonomikoa eta abar).

Kasu guztietan, jakinarazpenak ahalik eta deskribatzaileena izan behar du, errazagoa izan dadin komunikatutako jokaera eta, halakorik balego, salatua identifikatzea.

3.4. Jakinarazpena jasotzea eta jarraipena egiteko aukera

Kanal Etikoan jakinarazpena jaso ondoren, jaso dela adieraziko da berehala (eta gehienez ere hurrengo zazpi egun naturalen barruan).

Informatzaileak Kanal Etikoaren bidez egiten badu jakinarazpena, sistemak erreferentzia zenbakia eta kodea emango dizkio, noiznahi kontsultatu ahal izateko gune horretan egindako jakinarazpenaren egoera. Jakinarazpenak egoera eta fase hauek izango ditu:

- jakinarazpena egiten duenean, sistemak *erreferentzia zenbakia* eta *kodea* emango dizkio informatzaileari (posta elektronikoa eman badu, jakinarazpena jaso izanaren adierazpena ere jasoko du, gehienez zazpi eguneko epean)
- jakinarazpena aztertu ondoren, *onartua* ala *baztertua* izango da (informatzaileak posta elektronikoa eman badu, horren berri emango zaio)
- onartua izan bada, ikerketa hasiko da, eta jakinarazpena *lantzen* egoerara pasatuko da
- jakinarazpenaren ingurukoak aztertu ondoren, *ebazteko* egoerara pasatuko da
- prozesua bukatzeko, jakinarazpena *ebatzita* egoerara pasatuko da (informatzaileak posta elektronikoa eman badu, jakinarazpena ebatzi dela jakinaraziko zaio)

*Informatzaileak jakinarazpena egin ostean, hura osatzeko aukera izango du, informazio berria erantsiz, baina betiere jakinarazpena tramitatzen ari den bitartean; jakinarazpena ebazteko egoeran ezartzen denetik aurrera, ezingo da informazio berririk erantsi.

*Gertaera berei buruzko edo elkarrekin lotutako jakinarazpen bat baino gehiago jasotzen badira, jakinarazpen horien tramiteak prozedura bakar batean egin ahal izango dira.

4.- JAKINARAZPENAK TRAMITATZEA ETA KUDEATZEA

Hauek izango dira BERRIAk jakinarazpena jaso ostean beteko diren faseak:

- 1) Jakinarazpena jaso eta lehen fasean, Kanal Etikoaren Batzordeak aztertuko du jakinarazi den gertaera ikertu beharreko arau hauste bat den ala ez; anonimoa ez bada, informatzaileari jakinaraziko zaio jakinarazpena baztertu den ala tramitzeko onartu den (jakinarazpena anonimoa izan bada, informatzaileak jarraipena egiteko aukera izango du Kanal Etikoaren gunean, sistemak emandako gakoarekin eta pasahitzarekin).
- 2) Ikerketaren garapenerako egokia dela deritzonean, Kanal Etikoaren Batzordeak egozten zaizkion gertaeren berri emango dio salatuari, halakorik badago, eta jakinaraziko zaio eskubidea duela ikerketaren edozein unetan entzuna izateko eta idatzizko alegazioak aurkezteko.
- 3) Jakinarazpena anonimoa ez bada, aurreikusita dago informatzailearekin komunikazioa mantentzeko aukera izatea, eta, beharrezkoa bada, hari informazio gehigarria eskatzekoa.
- 4) Gehienez ere jakinarazpena jaso denetik hiru hilabeteko epean —konplexutasun bereziko kasuetan, epea beste hiru hilabetez luzatu ahal izango da—, ikerketako jarduketan eta ebazpenaren berri emango zaie informatzaileari (anonimoa ez bada) eta salatuari, halakorik badago.

5.- BARNEKO INFORMAZIO SISTEMAREN INDARRALDIA

Dokumentu hau BERRIAko Administrazio Kontseiluak onetsi du; berehala sartu da indarrean, eta indarrean jarraituko du hartan aldaketarik egiten ez den artean.